

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Borondatezko epean biltzea 2019ko zergak eta tasak

Nik, Natividad Lopez de Munain Alzolak, Burgeluko Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut: irailaren 15etik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, honako zerga eta tasa hauen 2019ko ordainagiriak:

- Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Zaborrak eta hiri hondakin solidoak biltzeagatik ordaindu beharreko tasa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

A) Borondatezko epea: 2019ko irailaren 15etik azaroaren 15era.

B) Premiamenduzko epea: azaroaren 16tik aurrera; egun horretatik aurrera, administrazio premiamenduko betearazte bideari emango zaio hasiera, eta dagokion erreargua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Dirubilketako Erregelamendu Orokorren arabera.

Ordaintzeko lekua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideraturik ez daukatenek borondatezko epean (irailaren 15etik azaroaren 15era) ordaindu beharko dute, Kutxabankek Dulantzin duen sukurtsalean (Dulantzi kalea, 11), bulegoko orduetan.

Gomendioak

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak eta jakinarazpenetarako helbideen aldaketak Burgeluko udaletxean izapidetu behar dira.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Burgelu, 2019ko abuztuaren 21a

Alkatea

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA